

berdintasunerantz!
diagnóstico y plan para la igualdad de
jeres y hombres en el Legutio de Berdintasune
rantz!
diagnóstico y plan para la igualdad de
jeres y hombres en el Legutio de Berdintasune
rantz!
diagnóstico y plan para la igualdad de
jeres y hombres en el Legutio de Berdintasune
rantz!
diagnóstico y plan para la igualdad de
jeres y hombres en el Legutio de Berdintasune
rantz!
diagnóstico y plan para la igualdad de
jeres y hombres en el Legutio de Berdintasune
rantz!



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Ayuntamiento de
Legutio

diagnóstico y plan para la igualdad de

AURKIBIDEA

1.	PLANAREN ABIAPUNTUA.. .. .	3
2.	ESPARRU TEORIKOA ETA LEGE-ESPARRUA.. .. . 5	..
3.	LEGUTIOKO I. PLANAREN EZAUGARRIAK.. .. .	12
4.	DIAGNOSTIKOAN JASOTAKO HOBEKUNTZA ARLOAK 13	..
5.	JARDUERA PLANA	17
6.	I. PLANAREN KUDEAKETA.. .. .	29
7.	KRONOGRAMA	35

1. PLANAREN ABIAPUNTUA

Legutioko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren printzipio eta lan-ildoak jarraitzen ditu.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantza

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, jarraituz generoaren zeharkakotasuna gauzatzera eramango luke Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantzak.

4/2005 Legeak, printzipio orokorretan, aldarrikatzen du botere publikoek egiten dituzten politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia barne hartu behar dutela, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko (3. artikulua). Lege honen ondorioz, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: *“emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea”*.

Balioak aldatzea

Balioek aldatzea VI. Planaren helburu orokorretariko bat da. Gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat bere sinkretismoa da, hau da, balio modernoek eta tradizionalen arteko

bizikidetzak. Nahiz eta euskal herritarren artean berdintasunaren diskurtsoa txertatzen ari den, emakume eta gizonek dituzten funtzio, rolek eta bere denboraren erabilera soziala ere ezberdinak dira oraindik.

Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen ahalduntzeak emakumeen bizimoduari eragiten dioten baliabideen eta erabakien gaineko autoritatea eta boterea areagotzen du. Emakumeak banaka nahiz taldean jabetzeko prozesuari buruz ari gara; izan ere, honen bitartez erabakiak hartzeko prozesuetako parte-hartzea areagotuko da, agintera iristen lagunduko du, eta eragina izateko ahalmenean ondorioa izango du.

Gizarte-antolakuntza erantzunkidea

Gizarte-antolakuntza erantzunkideak bizimodu pertsonala, familiara eta lanekoa uztartzea erraztea esan nahi du, gizonen erantzukizuna lortzea etxeko eta zaintza arduetan, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiararen beharrei egokitzea eta zerbitzu sozio-komunitarioak egokitzea sustatzea.

Emakumeen aurkako indarkeria

Ildo estrategiko horrek epe laburrean eragina izan nahi du, biktimen babes eta arreta osorako neurriak eta baliabideak eratuta. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinak emakumeen eta gizonen desberdintasunetik eratorritako gizarte-arazo gisa ikusarazten dituzten sentsibilizazioko eta prebentzioko jarduerak ere lehenetsi behar dira, pixkanaka horiek murriztu, eta azkenean, guztiz desagerrarazteko.

2. ESPARRU TEORIKOA ETA LEGE- ESPARRUA

Azken urteotan emakumei eta gizonei aukera-berdintasunerako eskubidea aitortzen dieten lege nahiz arau juridiko ugari onartu dira nazioartean, Europan, estatuan, bai eta udalerrietan ere. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako eskubideak berariaz aintzatestea da horien helburua, eta honako Berdintasun Plan honen aterpe zabala dira, bai erakundeen bai legeriaren aldetik.

Jarraian, genero-politiken egitura teorikoan eta legalean nabarmendu diren mugarri batzuk aipatuko ditugu:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEn emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoa.
- EAEn emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko VI. plana.
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen benetako berdintasunerakoa.
- Europako Gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituena (03/12/21ean eguneratua).

Legearen 28. artikuluan xedatzen denez, beste Administrazio Publiko batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera osagarri batzuk egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak. Ildo horretan, Toki-Administrazioaren garrantzia argia da, udalei esku hartzeko araugintzako esparrua uzten baitzaie, udalek jarduerak bultzatzen dituzten, bai eta generoaren inguruan herritarren beharrak eta itxaropenak betetzen laguntzen duten zerbitzuak eskaini dituzten ere, horren ondorioz beste Administrazio Publiko batzuen eskumenak galtzeko edo oztopatzeko inolako arriskurik egon gabe.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.

Lege honen baitan argi eta garbi zehazten dira zein diren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, administrazio maila bakoitzak dituen eginkizunak, Autonomia Estatutuko 10.39 artikuluan, Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c.2. artikuluetan, zein Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Ituneko 3.02 artikulua) ezarritakoak dakartzaten eskumenetatik abiatuta; izan ere, aipatutako lege eta arauak bete behar bi ezartzen dizkiete herri aginteei: bat, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eta erreala izateko baldintzak bultzatu eta oztupoak eraistea, eta, bestea, berdintasuna sustatzea herri-aginteen politika eta ekintza guztietan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako zeregin hauek ezarri dizkio herri-administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia txertatzeko.
- Ekintza positiboko neurriak betetzea.
- Programak egitea, Jaurkitzearen plangintza orokorraren esparruaren baitan eta Foru Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren baitan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
- Tokian tokiko eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumei, informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumei oinarrizko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei ere.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartze eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek tokiko eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Tokiko eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik desagerrarazteko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

Legean EAEn Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren diseinu eta estrukturazioari buruzko oinarrizko lau funtzioak ezartzen dira:

- Plana gauzatzean botere publikoen jarduera arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzea (Legearen Atariko Titulua).
- EAeko botereen eta herri-administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri sorta arautzea (I. eta II. tituluak).
- Eginkizun eratzaileria, hots, esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurriak eratzzea (III. titulua).
- Zigorren erregulazioa (IV. titulua).

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Plana.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak frogatzen duenez, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, funtsezko aurrerapausoa da berdintasun-politiken esparruan. Izan ere, arautu egiten du EAeko herri-administrazioaren jarduna, eta, hala dagokionean, erakunde pribatuena, berdintasunaren printzipio juridiko unibertsalean, bai tratu bera lortzeari dagokionez, baita aukera-berdintasunari dagokionez ere.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Plana egiteari eta egituratzeari dagokionez, Legean oinarritzko lau eginkizun zehaztu dira:

1. Plana gauzatzean botere publikoen jarduera arautu behar duten oinarritzko printzipioak ezartzea (Legearen Atariko Titulua).
2. EAEko botereen eta herri-administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri sorta arautzea (I. eta II. tituluak).
3. Eginkizun eratzailea, hots, esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurriak eratzea (III. titulua).
4. Oinarritzko edukiak definitzea.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoa.

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratutako Legea, batetik, honako premisa honetan oinarritzen da: "*emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza-eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da*". Bestalde, Legearen oinarritzko beste premisa baten arabera, legearen aurrean berdintasun formal erabatekoa onartzea funtsezkoa da, eta hobetu egin behar da araugintzaren bidez. Araugintza hori dela medio, "*oraindik ere geratzen diren sexuagatiko diskriminazio agerpen guztiei aurre egin behar zaie, diskriminazioa zuzena nahiz zeharkakoa izan, gizonezkoen eta emakumezkoen benetako berdintasuna bultzatzeko, eta hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak mugiaraziz*".

Besteak beste, Legea honako funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "ekintza positiboa", "ordezkaritza orekatua" eta "zeharkakotasuna".

21.1 artikulua adierazten duenez, "*bere eskumenak betetzean toki-erakundeek berdintasunerako eskubidea gain hartuko dute, eta gainerako herri-administrazioekin lankidetzan arituko dira horretarako*". Horrenbestez, 3/2007 Legeak tokian tokiko administrazioei dagozkien eskumenetara garamatza, hots, apirilaren 2ko 7/1985 Legean (toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) orokorrean adierazten direnetara, eta EAEko

udalerriei dagokienez, zehazki 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoan adierazten direnetara.

Europako Gutuna emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere bazkideek sustatu dute, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 5. Ekintza Egitasmo Bateratuaren esparruan. "*Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu*".

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) proiektuko bazkideetako bat da, eta gero eta gehiago dira gutuna sinatu duten udalak. Gutuna izenpetzen duten udalek konpromisoa hartzen dute bi urtean berdintasunerako plana egin eta gauzatzeko. Planak era parte-hartzailean egina egon behar du, ebaluazio-irizpideen arabera. Gainera, plana abian jartzeko behar adina baliabide izan behar dute udalek.

Europako Gutunak aitortzen duenez, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak "*esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraunkortasunari eta errepikapenari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko*".

Arau horien oinarria ondoren zehaztuko diren Berdintasunerako Printzipioetan dago: (4/2005 Euskal Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).

1. – TRATU-BERDINTASUNA

Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Legearen ondorioak:

- a) Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta; haurdun egonda edo ama izanda, esaterako; beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen

tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.

- b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta, administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-aginteek bermatu behar dute ezen bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla eta, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarrizko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2. – AUKERA-BERDINTASUNA

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoretarako, aukera-berdintasunaz ari garela, esan beharra dago agintea eta baliabide eta gizarte-onura eta onura ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-aginteek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).

3. – ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA

Herri-agintek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuak errespetatu daitezen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharriaz dagozkien ezberdintasunak eta aniztasuna, baita emakumeen artean eta gizonen artean dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

4. – GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA

Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoreetarako, honako hau da "*Genero-ikuspegia txertatzea*": emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharriaz ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea.

5. – EKINTZA POSITIBOA

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-agintek denboran ondo mugatutako berariazko neurriak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6. – SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA

Euskal agente publikoek sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta horrek, gainera, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdina eragiten du.

7. – ORDEZKARITZA OREKATUA

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondorioz, kide anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza dutenean.

3. LEGUTIOKO I. PLANAREN EZAUGARRIAK

Plan honen helburu orokorra udal kudeaketan genero ikuspegiaren txertaketa lortzea da, berdintasun arauemailea eta formala gainditu eta aukera eta emaitzen berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzen dituzten berdintasunerako udal politikak martxan jartzearen bitartez. Hurrengo ezaugarriak ditu:

- 4 urteko indarraldia du: 2016-2019 aldirako egin da.
- Aurretiko diagnostikoarekin, datuen aktualizazioarekin eta aurretiko Planaren ebaluazioarekin erlazioan sortu da era partehartzailean, udal langileria eta udalerriko gizarte eragileen inplikazio aktiboarekin.
- Plana koordinatzeaz eta bultzatzeaz alkatea arduratuko da.
- Plan ireki eta malgua da, eta urteko plan operatiboak definitu behar dira.
- Plan ebaluagarria da, eta lortutako helburuak etengabe ebaluatzeko adierazleak hartzen ditu barne.
- Erantzukizuna duten Arloek eta Erakundeek aurreikusitako denboran eta erabilgarri dauden baliabideekin garatzeko helburuak eta ekintzak jasotzen ditu.
- Udalerriri dagokion tresna da, eta politikarien, teknikarien eta herritarren konpromisoa dakar.

DIAGOSTIKOAN JASOTAKO HOBEKUNTZA ARLOAK

Ondoren emakume eta gizon herritarren, teknikoen, politikarien eta gizarte eragileen partetik diagnostiko honetan jasotako beharrak azaltzen dira, EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak aurkezten dituen oinarri eta esku-hartze ildoekin bat datozen bost arlo nagusietan taldekatuak:

- ✓ EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA
- ✓ EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
- ✓ BALIOEN ALDAKETA.
- ✓ GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA.
- ✓ EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

- Generoaren mainstreaming-aren aplikazioan arlo guztien inplikazioa lortu.
- Berdintasunari buruzko Gobernantza indartu (sustapen eta koordinazio egiturak, herritar partaidetzako organoa).
- Emakume eta gizonen berdintasunari buruz hezi eta sentsibilizatu.
- Genero ikuspegia praktikan jartzeko erramintak eman (hizkuntzaren eta irudien erabileraren gida, esaterako).
- Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzak antolatu eragile ezberdinen artean koordinatutakoak, kanpainak sendotu...
- Udal diru-laguntza eta kontratuetan berdintasunaren gizarte klausulak txertatu.
- Erabilitako programazioaren difusiorako bideak emakume eta gizonentzako eskuragarriak direla bermatu.
- Kultur-ekintzak ordu ezberdinetan eskeintzearen aukera ikertu.
- Emakume eta gizonen parte-hartze orekatua bultzatzea erabakiak hartzen diren esparruetan.
- Berdintasuna sustatu eta genero estereotipoak apurtzen dituzten ekintzak positiboki baloratu.
- Berdintasunarekin lotutako ekintzak komunikatu eta zabaldu.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- Emakumeen ahalduntzea aniztasun guztiak/ikuspegi interkulturala txertatuz.
- Erretiratutako emakumeentzako informatika, sare sozial eta teknologien tailerrak antolatu.
- Federazio-kirolean emakumeen partaidetza sustatu.
- Kirol-praktikarako orduan emakumeek dituzten oztupoak aztertu.
- Emakume gazteen kirol-praktika hobetzeko ekintzak sustatzen jarraitu.
- Beharrezkoa da kirol femeninoari omena ematea. Balioan jartzea.
- Berdintasunaren aldeko martxak, torneoak, kirol ekintzak, etab. antolatu.
- Bai emakume zein gizonentzako dagoen kirol aniztasunari buruz informatu eta sustatu.
- Praktika onak eta adibideak partekatzeke hezkuntza eragile ezberdinen artean sarean lan egin.

BALIOEN ALDAKETA

- Familiei informazioa, gidak, genero berdintasunari buruzko erramintak bidali.
- Berdintasuna, bokaziozko orientazio ez sexista eta genero ikuspegidun generazio arteko trukea sustatzeko tailerrak eta ikastolan emakumeen kontrako indarkeria saihesteko hezkidetza programa sustatu.
- Ikastolako jolas-orduetan neskek eta mutilek kirol ekintzetarako darabilten espazioaren erabileraren jarraipena, nesken eta mutilen praktikak zaindu eta espazioa hobeto antolatzeko helburuarekin.
- Informazio ez sexistaren eredu eta baliabideak zabaldu (jostailuak, jolasak, ipuinak, liburuak, pelikulak, etab.).
- Legutioko ume eta gazteen berdintasun inguru barore eta jarrerak ezagutu.

GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA

- Herritarrak zaintzaren onurei buruz sentsibilizatu balioa emateko asmoz.
- Ikastola eta Haurreskolako gurasoekin erantzunkidetasunari buruzko tailerrak egin.

- Udalerriko ekipamendu eta baliabideek (kirol instalazioak, kulturakoak, parkeak, etab.) bizitza pertsonala, familiarra eta lanbidearen kontziliaziorako errazten duten ezagutu.
- Kontziliazioaren inguruan herriak dituen eskaerak ezagutu.
- Gizarte guztiari erraztu Bizitza familiarra eta Lanaren Kontziliaziorako baliabideak, batez ere Udaletik antolatutako ekintza eta programetan (haurtzaindegi zerbitzua, sentsibilizazioa, etab.).
- Gizonak erantzunkidetasunaren onuren inguruan sentsibilizatu.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

- Kuadrilla mailan emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean atentziora hobetzeko Koordinazio Protokolo baten sorrera sustatu.
- Emakumeen aurkako indarkeria eta eraso sexual eta sexisten kasuen aurrean jarduketa publikorako protokolo bat jarri.
- Udaletik Tratu Onen Tailerrak sustatzen jarraitu.
- Azaroaren 25aren Kanpainetan lan egiten jarraitu.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako programetan gizarte eragile guztiak sartu.
- Planifikazio urbanistikoari dagokionez, udalerria aztertu gizarteak hautemandako zona arriskutsuak antzemateko.

4. JARDUERA PLANA

Planaren Arloak kontuan hartuta, 2016-2019 aldirako helburuak eta ekintzak landuko dira atal honetan.

Helburuek aldarazi nahi den gizartearen errealitatea definitzen dute; lehentasuna zer egitekori eman behar zaion finkatzen dute eta, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bidez, lortutako emaitzak zehazten dituzte.

I. Plan honetan arlo bakoitzerako helburuak zehaztuko dira, eta horietako bakoitzean gauzatu beharreko ekintzak hartuko dira kontuan, EAEko VI. Berdintasun Planean jasotzen diren ekintza-multzoetan taldekatuta eta ekintza mota kontutan izanda.

JARDUERA-ARLOAK	HELBURUA	EKINTZAK
	K	
BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETU	7	19
BALIOEN ALDAKETA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL, KOLEKTIBO ETA PERTSONALA.	3	12
GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEAN AURRERAPAUSSOAK EMATEA	2	17
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATU	2	8
GUZTIRA	14	56

BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETU

G1 Helburua. Berdintasunerako planifikazioa hobetu.

- **1. Ekintza.** Berdintasunerako Planean udal aurrekontuetan partida ekonomiko bat identifikatu.
Noiz: Planaren iraunaldian zehar.
Nor: Alkatetza eta beste sail guztiak.
Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasunerako Planerako aprobatutako udal aurrekontua (bai/ez).
- **2. Ekintza.** Berdintasun Planaren urteroko programa operatiboak aurrera egin.

Noiz: Planaren iraunaldia.

Nor: Alkatetza eta interarloko batzorde teknikoa.

Betetze-mailaren adierazlea: Urteroko programa opetariboa egina (bai/ez).

G2 Helburua. Berdintasunerako koordinazio-estrategiak sustatu.

- **1. Ekintza.** Berdintasun Planari baliabide profesionalak jarri (Berdintasun Teknikaria plana sustatzeko eta garatzeko)

Noiz: 2016tik.

Nor: Alkatetza eta arlo guztiak.

Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasun Teknikaria.

- **2. Ekintza.** Legutioko I. Berdintasun Planaren elaborazio eta aprobazioari buruz EAEko Berintasun Organismoak informatu.

Noiz: 2016.

Nor: Alkatetza.

Betetze-mailaren adierazlea: Informatutako entitate kopurua.

- **3. Ekintza.** Berdintasun Batzorde Mixto baten sorrera sustatu, udaleko, Batzar Adminstratiboetako eta gizarte eragileetan errepresentazioarekin.

Noiz: 2016.

Nor: Alkatetza eta beste sail guztiak, Udal Elkarteak.

Betetze-mailaren adierazlea: Batzorde Mixto baten existentzia (bai/ez).

Batzordean parte hartzen duten emakume eta gizonen kopurua. Urteko bilera kopurua. Onuratuaren kopurua sexuz.

- **4. Ekintza.** *Berdinbidean*, Europako Gutuna, etab. bezalako udalerrien sare ezberdinetan parte hartu.

Noiz: 2016.

Nor: Alkatetza.

Betetze-mailaren adierazlea: Legutiok parte hartzen duten sare kopurua.

G3 Helburua. Genero ikuspegia estatistika, ikerketa eta programa guztietan txertatu.

- **1. Ekintza.** Udal kudeaketan genero ikuspegia nola txertatu jakiteko gidak egin.

Noiz: 2016.

Nor: Alkatetza eta sail guztiak.

Betetze-mailaren adierazlea: Udal kudeaketan genero ikuspegia txertatzen jakiteko gidaren existentzia (bai/ez). Onuratuaren kopurua sexuz.

- **2. Ekintza.** Udaletxeak bultzatutako ikerketa guztiek genero ikuspegia txertatua dutela bermatzea.
 Noiz: 2017tik.
 Nor: Alkatetza eta beste sail guztiak.
 Betetze-mailaren adierazlea: Genero ikuspegia bere barne duten ikerketa/memoria/informe kopurua.
- **3. Ekintza.** Udal datuak sexuz banatzea.
 Noiz: 2016tik.
 Nor: Alkatetza eta beste arlo guztiak.
 Betetze-mailaren adierazlea: Sexuz banaturiko udal datuak.
- **4. Ekintza.** Intersekzionalitatea kontuan eduki, hau da, ez bakarrik sexuaren araberako ezberdintasunak, baita desgaitasuna, jatorria, erlijioa, adina, etab. ere.
 Noiz: 2017tik.
 Nor: Alkatetza eta beste sail guztiak.
 Betetze-mailaren adierazlea: Intersekzionalitatea bere barne duten informe kopurua.

G4 Helburua. Formakuntza-ekintzetan genero ikuspegia txertatu.

- **1. Ekintza.** Emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legearen 17. artikulua ezartzen duen bezala, Udaletako langile eta kargu politikoei berdintasunaren inguruko formakuntza eman.
 Noiz: 2016tik.
 Nor: Alkatetza eta beste sail guztiak.
 Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasunari buruzko urteko formakuntza eginda (bai/ez). Formatutako pertsonak sexuz bereziak. Onuratuak kopurua sexuz.
- **2. Ekintza.** Pertsona guztiek metodo ezberdinen bitartez formakuntza egin ahal izatea bermatzea: online formakuntza, kontziliazio-zerbitzuak, ordutegi adostasuna, etab.
 Noiz: 2016tik.
 Nor: Alkatetza eta beste sail guztiak.
 Betetze-mailaren adierazlea: Gertuko zerbitzuetan formatutako emakume eta gizonen kopurua. Onuratuak kopurua sexuz.

G5 Helburua. Udal normatiban berdintasunaren printzipioa txertatu.

- **1. Ekintza.** Genero ikuspegitik udal normatiba berrikusi.
Noiz: 2017tik.
Nor: Alkatetza, idazkaritza.
Betetze-mailaren adierazlea: Genero ikuspegitik udal normatiba berrikusia (bai/ez).
- **2. Ekintza.** Beharrezkoa izan ezker aldaketak egin.
Noiz: 2017tik.
Nor: Alkatetza, idazkaritza.
Betetze-mailaren adierazlea: Aldaketa izandako dokumentu normatiboen kopurua (bai/ez).
- **3. Ekintza.** Lanbide publikoan sarbide eta promozio-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak sartu.
Noiz: 2017tik.
Nor: Alkatetza, sail guztiak, idazkaritza.
Betetze-mailaren adierazlea: Hautaketa-prozesuetan edukiak txertatuak (bai/ez).
- **4. Ekintza.** Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan (Diru-laguntzen plan estrategikoa, adibidez) berdintasunerako klausulak txertatu.
Noiz: 2017tik.
Nor: Alkatetza, sail guztiak, idazkaritza.
Betetze-mailaren adierazlea: Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak (bai/ez).

G6 Helburua. Komunikazio inklusiboa bermatu.

